


ATZERRIKO BISITARIAK EUSKADIN – FRONTUR 2010

2012ko maiatza



EZAUGARRIAK

Lanaren zuzendaria:

LiNVESTiC, S.L. k burututako lana, César Legarra Riverok zuzenduta.

Erredaktore-taldea:

- **César Legarra Rivero.**
Zuzendari Orokorra
- **Yolanda Manzana Oreja.**
Datu-tratamenduaren arduraduna
- **Joxe Mari Urretabizkaia Sacristán.**
Kontsultorea

Sortze-data:

2012ko maiatza

Bertsioa:

Iruzkinak:

Atzerriko bisitariak Euskadin

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak, BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentziaren bidez, Mugako Mugimendu Turistikoen (FRONTUR) eta Gastu Turistikoaren Inkestaren (EGATUR) etengabeko estatistikaren berriazko ustiapenak emandako emaitzak aurkeztu ditu beste urte batez. Datuak Euskal Autonomia Erkidegokoak dira, eta bi inkesta horiek, Turismo Azterketen Erakundeak (IET) egin ditu, Euskadin dagoen errealitate turistikoa hobeto ulertzeko.

Txosten honetan dagoen informazioa 2010. urtekoa da. Horrela, 1998. urtean, Euskadira etortzen diren atzerriko turisten eskaeraren portaera definitzen duten egiturazko ezaugarriak eta turisten joerei buruzko informazio zehatza izateko egin zuten lehen txostenari gehituko zaio.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Turismoaren Euskal Agentziak eskerrak eman nahi dizkio Turismo Azterketen Institutuari, turismoaren arloan, testuinguru estatistiko nazionalaren estatistikarik sendoenetako baten datuak eskuratzeko emandako laguntzarengatik.

FRONTUR inkestaren fitxa teknikoa:

FRONTUR erakundearen estatistika Espainiara, hilabetez hilabete, mugetatik heltzen diren turisten kopurua neurtzeko oinarritzko iturri ofiziala da.

Argitalpen honetan agertzen diren taulak egiteko erabilitako informazioa, Euskadira aireportutik eta errepidez Espainiatik sartu ziren bidaiariei egindako inkestetatik bildu dugu.

EGATUR inkestaren fitxa teknikoa:

Gastu Turistikoaren Inkesta (EGATUR), muga, etengabe eta hilabetez hilabete, errepide, aireportu eta itsas portuetako muga-pasabideetan egindako lana da. Inkesta, egoiliarak ez diren bisitariei Espainiatik irtetean egindako elkarrizketa pertsonalaren bidez egiten da.

Argitalpen honetan agertzen diren taulak egiteko erabilitako informazioa, Euskadira aireportutik eta errepidez Espainiatik sartu ziren bidaiariei egindako inkestetatik bildu dugu.

AURKIBIDE

0.- HITZ GLOSARIOA.....	8
1.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN TIPOLOGIA.....	9
1.1.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	10
1.2.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2010).....	10
1.3.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	11
1.4.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	11
2.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTAK.....	12
2.1.- Euskadira etortzen diren turistak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	12
2.2.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	12
2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2007 – 2010).....	13
2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea.....	14
2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	14
2.6.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	15
2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea.....	15
2.8.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	16
2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2010).....	16
2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	17
2.11.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea.....	18
2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	18
2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2010).....	19
2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	19
2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea.....	20
2.16.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. 2010 urtea.....	20
2.17.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa. 2010 urtea.....	21
2.18.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	21
2.19.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	22

2.20.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2010).....	22
2.21.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta sexuaren arabera. 2010 urtea.....	23
2.22.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)	23
2.23.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketa eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)	24
2.24.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketa eta sexuaren arabera. 2010 urtea	24
3.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK	25
3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	25
3.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	25
3.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2007 – 2010).....	25
3.4.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	27
3.5.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)	27
3.6.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010).....	27
3.7.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea	28
4.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN GASTUAK	29
4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	29
4.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa. 2010 urtea	29
4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	30
4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien batez besteko gastua, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	30
4.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	31
4.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2010 urtea.....	31
4.7.- Euskadira etortzen diren bisitarien eguneko batezbesteko gastua (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2010 urtea	32
4.8.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2010 urtea.....	32
5.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN GASTUAK	33
5.1.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	33
5.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa. 2010 urtea	33
5.3.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	33
5.4.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	34
5.5.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	34

5.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bizileku nagusien arabera. 2010 urtea.....	35
5.7.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	35
5.8.- Euskadira etortzen diren turisten pertsonako batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	36
5.9.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	37
5.10.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bisitaren arrazoiaren arabera. 2010 urtea	37
5.11.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	38
5.12.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	38
5.13.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	38
5.14.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, erabilitako ostatuaren arabera. 2010 urtea	39
5.15.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	40
5.16.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	40
5.17.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	41
5.18.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2010 urtea	41
5.19.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	42
5.20.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	42
5.21.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	43
5.22.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bidaiaren antolaketaren arabera. 2010 urtea	43
5.23.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	44
5.24.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	44
 6.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEEN GASTUAK.....	 45
6.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	45
6.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoaren banaketa. 2010 urtea	45
6.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	45
6.4.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. 2010 urtea	46
6.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	46
6.6.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).....	46
6.7.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. 2010 urtea	47

6.8.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa pertsonako, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)	47
--	----

TAULEN ZERRENDA

T1.- Euskadira etortzen diren bisitariak, bisitaren urte eta hilabeteko, garraio motaren arabera. 2007 – 2010 urteak	13
T2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, bisitaren urte eta hilabeteko, garraio motaren arabera. 2007 – 2010 urteak	26

0. HITZ GLOSARIOA

OMTeak (Nazio Batuetako turismoan espezializatutako agentzia) "Turismoaren Estatistikarako Gomendio Internazionalak (RIET)" dokumentuan, hurrengo definizioak azaltzen ditu:

Turismoa gertaera sozial, kultural eta ekononiko bat da, pertsonak bere ohizko bizilekuetatik arrazoi pertsonal edo profesionalengatik, eta urtebete baino gutxiagoko denboraldi kontsekutibo batean, egiten dituzten mugimenduekin erlazionatua dago.

Pertsona baten **ohiko ingurunea**, turismoan kontzeptu erabakigarria, pertsona batek bere eguneroko ohiko aktibitateak egiten dituen inguru geografikoa (ez du aldamenekoa izan beharrik) bezala ezagutzen dugu.

Bidaia bi herrialde desberdin edo gehiagoren artean mugitzen den pertsona, edo bere herrialdearen barruan, bere ohiko bizilekutik, bi leku desberdin edo gehiagora mugitzen den pertsona bat da.

Bisitaria: bere ohiko ingurunetik kanpo, norako nagusi batera bidaiatzen duen pertsona da, urtebete baino denbora gutxiagorako, edozein dela eta bere helburu nagusia (aisia, salerosketak edo beste edozein arrazoi pertsonal), herrialde edo beste leku honetan kokatutako entitate batek kontratatzea bada izan ezik.

Turista: bisitatutako herrialdean ostatu kolektibo edo pribatu batean gutxienez gau bat igarotzen duen pertsona da.

Txangozalea: bisitatutako herrialdean ostatu kolektibo edo pribatu batean gaurik igarotzen ez duen pertsona edo egun bakarreko bisitaria da

Bidai turistiko baten norako nagusia bidaia egiteko erabakigarria den bisitatzen den lekua da.

Ohiko bizileku edo herrialdea, pertsona batek ohikoen duen bizilekuaren kokapen geografikoa da. Pertsona bat urtebe baino gehiagorako leku konkretu batean bizi bada (edo bizitzea pentsatzen badu), eta bertan bere interes ekonomikoak baditu (adibidez, bere denbora bertan pasatzen badu gehien bat), pertsona hori leku edo herrialde hontako biztanlea dela esan daiteke.

Bidai turistiko batean ez balitz **arrazoi nagusia** existituko, bidaia ez litzateke inoiz burutuko.

Pakete turistikoa modu bakarrean komertzializatzen den produktua da. Turismoaren arloko bi zerbitzu edo gehiagorako osatua dago, adibidez, ostatua, mantenua eta garraioa, eta denagatik prezio bat ordaintzen da. Paketearen barruan kontsumitzaileak ezinezkoa du ematen zaizkion zerbitzu bakoitzari bere bakarkako prezio ezartzea.

Gastu turistikoa: Kontsumorako ondare eta zerbitzuengatik, eta objektu baliotsuengatik, nahiz ta oparitzeko edo kontsumo pertsonalerako izan, bidaiaren zehar eta bidaiarako, ordaindutako diruaren gehiketa da. **Gastu turistikoak** bi gastu mota barneratzen ditu, bisitariak Euskadira egindako bidaiaren zehar egindako gastuak, eta bidaia hasi baino lehen egindakoak, hala nola, egazkin txartela eta pakete turistikoa.

Gastu turistikoaren konposaketa:


- **Pakete turistikoan egindako gastua.**
- **Ostatuan egindako gastua.**
- **Garraioen gastua**: joan eta etorriko garraioa eta norakoan garraioan egindako gastuak barneratzen ditu.
- **Jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua.**
- **Elikagaietan egindako gastua.**
- **Txango eta bestelakoetan egindako gastua**: txangoetan egindako gastuak, opariak eta bestelako gastuak, inbertsioak ez diren bitartean.

1. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN TIPOLOGIA


Euskadira etortzen diren atzerriko bisitarien zenbakia nabarmenki igo da 1998an ikerketa hau hasi zenetik. 2006. urtean bisitari kopuru altuena lortu zen, ondorengo bi urteetan behera eginez (2007 eta 2008), baina hurrengo bietan (2009 eta 2010) bisitarien merkatua indarberritu egin zen, nahiz ta 2006ko maximo historikoak ez lortu.

Txangozaleek bisitari multzoaren joera berdina aurkezten dute, hauen artean duten pisua dela eta.

Turistek eredu desberdin bat mantentzen dute, aldakorragoa, 2000. urtean beherakada arin bat jasan zuten, 2003 ordea berriz ere gora egin zuten, 2004ean pixka bat jeisteko. Hemendik aurrera igotzen joan dira 2006. urterarte, bertan baitaukagu puntu maximoa, milioia gaingituz. Hurrengo urteetan daukagu jeitsiera handiena, 2009rarte, Euskal Herrian atzerriko turismoaren beherakada handiena ikusten dugularik, 2002an heldutako mailetatik behera jeitsiz. Zorionez, 2010. urtean berreskuratze bat nabari da.




Hileroko joera urteetan zehar errepikatu egiten da, bai txangozaleen eta bai turisten artean, udara delarik bisitari gehien ekartzen dituen aldia.



1.1.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Euskadira 9.104.857 atzerriko bisitari etorri ziren 2010. urtean. Gutxi gorabehera, aurreko urtean baino 282.000 bisitari gehiago dira. Bilakaera berri honek, 2007 eta 2008 jardunaldietako gutxitze joera horri berritzuli bat ekartzen du, 2009. urtean jarraituz.

Bisiten kopuru handiena txangozaleei dagokie (%90,3), eta ostatu gaua egindako bisitak berri %10era iristen dira ia, atzeraldi-urteetako baino gehiagoko mailak berreskuratuz.



Txangozaleak eta turistak 2010. urtean joera homogeen bat erakusten dute, baina proportzio ezberdinetan. Txangozaleek %2,2ko igoera txiki bat jasan dute, turistek berri %13,1ko igoera nabarmen bat. Bisitarien gorakada, heren batean turisten igoerari dagokio eta bi herenetan txangozaleen igoerari.


Gure turismo-eskaeraren ezaugarriak esanguratsuenetako bat, gure erkidegoan atzerriko turismoak duen pisu handia da, zalantzarik gabe. Funtsean, bi arrazoiengatik gertatzen da: batetik, Iparraldeko mugako bi aldean artean dagoen elkarrekintza maila handiarengatik, lanen, merkataritzaren, negozioen, aisialdiaren edo senideen bidez, muga banaketaren kontzeptutik oso urrun dagoen lurralde-jarraitutasuna erakusten dutenak; bestetik, Estatuko beste leku batzuetan, eguzkia hartzeko eta hondartzara joateko opor-ereduak Euskadin duen eragin eskasaren isla da.

1.2.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2010)

Emandako gau kopuruari dagokionez, desberdintasun handia dago Euskadira eta Espainiara etorritako atzerriko bisitarien artean.

Txangozaleen nagusitasuna masiboa da Euskadin, bisiten %90 ekartzen duelarik. Estatu mailan berri, turismoari dagokionez, gutxienezkoa da, %45era ere ez delarik heltzen.

Euskadik eskari-egituren joera aldatzen du, 2006tik txangozaleen pisuaren hazkunde bat mantenduz.




1.3.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Euskadira etorritako atzerriko bisitari gehienak errepidez etortzen dira: %97 baino gehiago horrela etortzen dira.

Errepidearen eta aireportuaren erabileraren artean dagoen alde hori txangozaleengatik gertatzen da, hegazkina gutxitan erabiltzen dutelako.

Hala ere, gaua ematen dutenen kasuan, normalean hegazkinez etortzen dira. Turista gehienak errepidez etortzen dira; lau turistetatik ia hiru.

Urteetan zehar eutsi egin zaio errepidez eta hegazkinez etorritako turisten arteko desberdintasunari. Txangozaleen sarreretan gertatutako aldaketek asko baldintzatzen dute, turismoaren artean gertatzen diren aldaketa nabarmenak ezkutatzen dituztelako.




1.4.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Bere sexuari dagokionez bisitarien banaketan, gizonak nagusitzen dira emakumeen %60aren aurrean.

Azken lau urteetako joerak, gizon-proportzioa ia 6 puntutan handitzea eragin du.

Gehikuntza hau, bai turistengan bai txangozaleengan gertatutako igoeraren produktua da.

2010. urte honetan da bisitarien sexuaren artean desberdintasun gehiago dagoen urtea, aurreko urteetan erdizkatik oso hurbileko banaketa egon zelarik.




2. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTAK

Euskadira 882.750 turista etorri ziren 2010. urtean. Aurreko urtean baino 101.991 gehiago dira, baina nabarmena da jada, aurreko bi urteetako zifrak gaintitu direla, eta 2007ko etorrera zifretatik hurbil daudela, 2007a turista-galera jasan zen lehengo urtea izan zelarik. Metatuta, jeitsieraren hasieratik, atzeritarren merkatu turistikoa %25an uzkurdu da, aurreko urteen jeitsieraren %13a jada 2010. urte honetan berreskuratuz.

2.1.- Euskadira etortzen diren turistak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Turisten sexukako banaketa deigarriago eta desberdinagoa gertatzen da talde honetan bisitarien multzoarengan baino. Gizonek turisten %61 irudikatzen dute.

Azken 6 urteetan gizonen eta emakumeen arteko proportzioak 3 puntu portzentualetan fluktuatu du, hots aldaketa ia hautemanezina da.




2.2.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

2010aren sarrera turistikoekin lotutako ezaugarri nagusia, aurreko urteari dagokionez 100.000 turista baino gehiagoko errekeruperazioa da.

Errekuperazio honek, balazta jartzen dio merkatu turistikoan aurreko bi urteetan gertatutako uzkurdurari.

2009an errepidez datozen turistak arinki berreskuratzen hasi ziren eta orain da, 2010ean, ekonomia turistikoan bultzada nabarmena gertatzen ari denean. Hala ere, aire bidetik datozenetan, urte honetan da aurreko urteetan erortzen aritu den sektore honen errekeruperazio bat ikusten dugunean.



Azken urtean bidaiari zenbakiaren igoera errepidez egindako bisitetara xedatzen da batez ere. Hauek, 65.810ean handitu dira, airez egindako bisita turistikoak berriz, gutxiago igo dira, 36.000 inguru.

Hazkunde hauek %17,1 dakarte airez eta errepidez %11,6a, %13,1eko neurrizko hazkunde ertain bat eraginez.

Bi sarbide hauen arteko turisten pisuaren erlazioa, desorekatzen jarraitzen da, azken urteetan bezala, errepidearen alde. Errepide bidezko garraioak, multzoaren %72koa da ekitaldi honetan zehar, bigarren pisu altuena aurreko urteko %73a eta gero, 2002ko aireko garraioaren krisi orokorretik.


2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2007 – 2010)

T1.- Euskadira etortzen diren bisitariak, bisitaren urte eta hilabeteko, garraio motaren arabera. 2007 – 2010 urteak / Turistas con destino en el País Vasco por año y mes de la visita según modo de transporte. Años 2007 – 2010

	GUZTIRA/ TOTAL	Errepidea/ Carretera	Aireportua/ Aeropuerto
2007	934.970	647.616	287.354
Urtarrila/Enero	49.280	32.558	16.722
Otsaila/Febrero	46.287	28.023	18.264
Martxoa/Marzo	59.799	35.087	24.712
Apirila/Abril	74.774	47.346	27.428
Maiatza/Mayo	76.147	47.966	28.181
Ekaina/Junio	77.669	53.003	24.666
Uztaila/Julio	155.985	122.300	33.685
Abuztua/Agosto	160.450	129.115	31.335
Iraila/Septiembre	76.350	49.208	27.142
Urria/Octubre	74.651	47.257	27.394
Azaroa/Noviembre	41.798	28.470	13.328
Abendua/Diciembre	41.780	27.283	14.497
2008	817.081	560.360	256.721
Urtarrila/Enero	36.764	24.089	12.675
Otsaila/Febrero	52.094	36.088	16.006
Martxoa/Marzo	60.297	35.522	24.775
Apirila/Abril	56.773	34.024	22.749
Maiatza/Mayo	76.810	47.186	29.624
Ekaina/Junio	67.253	48.491	18.762
Uztaila/Julio	127.026	101.943	25.083
Abuztua/Agosto	135.299	107.047	28.252
Iraila/Septiembre	72.477	40.693	31.784
Urria/Octubre	58.075	37.035	21.040
Azaroa/Noviembre	36.809	24.376	12.433
Abendua/Diciembre	37.404	23.866	13.538
2009	780.759	569.552	211.207
Urtarrila/Enero	32.459	21.396	11.063
Otsaila/Febrero	41.680	29.387	12.293
Martxoa/Marzo	50.531	36.304	14.227
Apirila/Abril	53.981	34.565	19.416
Maiatza/Mayo	54.290	37.254	17.036
Ekaina/Junio	58.193	41.732	16.461
Uztaila/Julio	149.633	123.617	26.016
Abuztua/Agosto	124.428	101.728	22.700
Iraila/Septiembre	71.668	50.979	20.689
Urria/Octubre	57.743	42.294	15.449
Azaroa/Noviembre	42.520	28.104	14.416
Abendua/Diciembre	43.633	22.192	21.441
2010	882.750	635.362	247.388
Urtarrila/Enero	33.529	18.351	15.178
Otsaila/Febrero	48.625	31.285	17.340
Martxoa/Marzo	65.439	44.193	21.246
Apirila/Abril	66.605	44.007	22.598
Maiatza/Mayo	66.141	45.414	20.727
Ekaina/Junio	71.309	49.545	21.764
Uztaila/Julio	149.496	124.071	25.425
Abuztua/Agosto	140.386	115.365	25.021
Iraila/Septiembre	78.781	58.719	20.062
Urria/Octubre	68.021	49.427	18.594
Azaroa/Noviembre	53.779	29.001	24.778
Abendua/Diciembre	40.639	25.984	14.655

Lehor-bideetatik datozen turisten zifrak 2007ko maietan kokatzen dira eta aire-bideetatik etorritakoenak 2008koetan.

Euskadiko atzerriko turistak gehienbat udako hilabeteetan etortzen dira, hots, uztail eta abuztuan, eta udaberriko eta udazkeneko turista kopurua negukoa baino askoz ere handiagoa da.




Izan ere, uztail eta abuztuan, dagoen turismo-eskaeraren herena biltzen da.

Aurreko urteen aldean, 2009. eta 2010. urteko berezitasun gisa, uztailan abuztuan baino turista gehiago egon zen, bai errepidez bai hegazkinez etorritakoen artean.

Udakoak ez diren oparraldi ziklikoak, Aste Santua esaterako, etorri turistikoaren une bateko igoera zehazten dute. Gehikuntza hau askoz gutxiago hautematen da, hala ere, Gabonetan zehar, aireko merkatuaren jeitsiera nabarmena izan denean, hilabeteko bidaiarien erabateko zifra joan den urteko balioen azpira eramanez.


Aurreko urteari dagokionez bidaiarien igoerak hilabete guztietan zehar gertatu dira, aipatutako abenduko hilabetea izan ezik. Ekainean ia aldaketarik gabe mantendu da. Urtarrila, uztaila eta abendua salbuetsiz. Urtarrilean igoera %3,3koa izan da, uztailan %0,1 jeitsi da eta abenduan %6,9a jeitsi da ere, gainerako hilabeteek fluxuen hazkunde sendo bat jasan dute, %10 eta %30en arteko tasekin.

Errepidez eta aireportutik sartzen diren bidaiarien arteko portaera, bi bidaiari-tipologiaren artean bereizitako joerak markatzen du. Horrela, errepidez sartzen direnek urteko hilabete guztietan zehar bere fluxuak areagotu egiten dituzte, urtarrila salbuetsiz, ordea aire bidez sartzen direnek uztaila, iraila eta abenduan txikiagotu egiten dituzte.



2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea

Turisten sexu banaketari dagokionez proportzio berdina aurkezten dute, Euskadira etortzeko erabilitako sarbidea edonolakoa dela ere. Banaketaren osoaren batzbestekoa balio berekin bat dator, gutxi gorabehera emakumeen % 38a gizonen %62aren aurrean.




Efektu hau aurreko urteetan ematen den bera da, nahiz eta balio portzentual orokorretan desberdintasun txikiak egon.

2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Euskadi bisitatzen duten merkatu atzeritar nagusiek hazkunde bat izan dute aurrean, munduko beste herri batzuek osatutako merkatua salbu, batez ere Ipar Amerikako eta Latinoamerikako biztanleak.


Frantziarrek, turista-rankinean lehen lekua betetzen dute eta gainerako bizileku-herrietatik oso aldenduta daude, oso bilakaera positiboa aurkezten dutelarik. Bi lurraldeen arteko hurbiltasuna da arrazoi nagusia. Euskadi bisitatzen duten 2 turistetatik bat Frantziarra da.



Azken finean, urte honetan, europar turistak merkatuak turista multzo osoaren %90 baino gehiago irudikatzen du, Ipar Ameriketakoak %2,7, Latinoamerikarrak %2,5 eta munduko gainerako herrietakoak %3,8.

2.6.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Atzerriarrak gehienbat errepidez etortzen dira, distantzia ertain eta luzeko turismoaren nolabaiteko mendetasuna duelako. Horrela, bisitarien %50 Frantziatik etortzen da, 443.000 turista gutxi gorabehera, eta haietatik, ia %70, errepidez etortzen da. Bestalde, hegazkinez, Euskaditik puntutik punturako aire-loturak dauden herrialdeetatik datoz bisitariak



gehienbat, hala nola Erresuma Batutik eta Alemaniatik, eta, oro har, urtetik urtera, lotura hori ez dagoen herrialdeetatik etorritako bisitari kopurua handitzen ari da.


Euskal turismoaren industriak distantzia ertain eta laburreko frantziar turismoarekiko duen mendetasuna nabarmen handitu zen 2010an; hori izan zen, hain zuzen, ezaugarri nagusia. Garrantzi gutxiagoko merkatuak, amerikar eta latino-amerikarrak, aurreko urteari dagokionez indarra galdu duten bakarrak dira.

Eskariaren hazkundea ez da komuna merkatu guztietan, adibidez merkatu frantsesa, bereiziki lehor-bideetatik, dinamikoa aurkeztzen da, 40.000 turistako igoera batekin. Merkatu alemana aire bidetik 14.000 baino gehiagotan igotzen da.

2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea

Lehenago esanda dagoen bezala, turista gizon eta emakumeen proportzioaren batezbestekoa, %62 - %38koa da hurrenez hurren. Banaketa honi dagokionez, nabarmenki desbideratzen den merkatu bakarra portugaldarra da, gizoneko turistaren kopurua emakumeena baino askoz handiagoa delarik.

Bidaiazteko era hau ez da urte honetan bakarrik eman, aurreko urteetan, portugaldarrek era berean egiten zuten, gizonak nagusituz.




Turisten igoeran ez da proportzio berdinean mantentzen, gizon kopurua emakumeena baino era esponontzialagoan handitzen da. Aurten igo diren 36.000 frantsesetatik, 32.000 gizonekoak izan dira eta 4.000 emakumezkoak.

Gainerako bizilekuekin berdina gertatzen da, erabateko zenbaketan gizonen igoera 84.000 eta emakumeena 18.000koa delarik.

2.8.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Atzeritar gehienak, ia %48, funtsean aisialdirako etorri ziren. Gainerakoak, negozioak egiteko, ikasteko eta arrazoi pertsonalengatik etorri ziren. Arrazoi nagusi horietatik kanpo, Euskadira joateko motibazioak eskasak dira.


Hala ere, atzerriko turismoaren eskaerak krisia izan zuen, funtsean, oporreetatik eta aisialdirako etortzen diren bisitarien kopurua behera egin zuelako. Beraz, arrazoi pertsonalek (osasuna, senideei bisitak, eta abar), gehikuntza garrantzitsua erakusten dute, 75.000 turista baino gehiagokoa. Beste arrazoi batzuen egoera, lehen adierazitakoetan saikaturik ez daudenak, aurten ia 20.000 bidaiariko igoera batekin, gehien hazi den hurrengoa da.



2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2010)

Bai Euskadin bai Estatu mailan, eskari turistikoen egiturak antzeko eredu bat jarraitzen du, aisiagatiko bisiten nagusitasun argian oinarritutuz. Aurtendanik aurrera da bigarren leku honetan, eredu aldaketak sumatzen diren lehenengo urtea, arrazoi pertsonalengatik Euskadira datozen turisten zenbakia handituz eta lana edo ikasketengatik datozenak baztertuz.

Hala ere, antzekotasuna ez da osoa, eskaera horren funtsezko alderdietan bakarrik delako. Izan ere, Estatuan, aisialdirako turismorako joera handia dago, normalean eguzkia hartzeko eta hondartzara joateko erabiltzen baitute, baina Euskadiren kasuan eskaera hori eskasa da, turismo-azpiegitura horiek ez dituelako eta, agian, klimaren ereduarekin lotutako zenbait ezaugarri ere ez dituelako.



Tradizioz, negozioek pisu handia izan dute Euskadira etortzen diren turisten artean. Horrela, turismo-eskaintza gehiena bide horri jarraitu dio. Gaur, nazioarteko krisi ekonomikoagatik, bere pisua egonaldi turistikoaren %20aren inguruan kokatzen da, aurreko ekitaldian baino puntu 1 gutxiagokoa eta Estatuaren multzoko eraginaren bikoitzean. Alde handi horren arrazoiak bi dira nagusiki: batetik, euskal industria-egituraren bizitasuna; bestetik, aisialdiko eskaera-eredu masiborik ez dagoelako, eguzkia eta hondartza nagusiki.

Antzekoa gertatzen da bisita pertsonaleko ereduarekin. Euskadik osasun-aisialdiko eskaintza du, eta bezero tradizionalak finkatzen dituen heinean gora egiten du. Gainera, bere mugako egoerak eta bere izaera iragazkorrak eta eskualde arteko mugimenduek, arrazoi pertsonalengatik fluxu turistikoak dakartza. Faktore hauek Euskadin motibazio honek Espainian duen pisua boskoiztera heltzeak nolabait azaldutzen du. Hala ere, negozio arrazoiarekin gertatzen den moduan, pisu erlatibo handi horrek, aisialdi-eredu masiborik ez egotearekin du zerikusia.

Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-eskaeraren aldean, Estatukoak egonkor eutsi dio eskaeraren motibazio-egiturari azken urteetan.

2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)


Oinarritzko alderdietan dauden antzekotasunez gain, hala nola motibazio guztien artean aisialdi nagusitzearena, errepidez eta hegazkinez etortzen diren bisitarien motibazioen artean alde nabarmenak daude.

Lehendabizi, errepidez etortzen diren turista gehienak aisialdirako etortzen dira, hegazkinez etortzen

direnen aldean. Bigarren, hegazkinez etortzen diren turisten artean arrazoi pertsonal gutxi daude Euskadira etortzeko. Gehienbat, aisialdirako (%46) eta negozioak egiteko (%40) etortzen dira.

Nabarmendu behar da azken urteetan aisialdirako eta oporretarako bisitek izandako bilakaera. Nabarmen murriztu egin dira, bai hegazkinez bai errepidez etortzen diren bisitarien artean, eta hegazkinez etortzen diren bisitarien artean bereziki pisu erlatiboak jaitsiera handia izan du. Zehazki, 2010ean zehar aisiagatik lehor bideetatik datozen bidaiarien eskari turistikoaren uzkurdura moteldu egin da, hegazkin bat hartzen dutenen artean bizkortu egin da berriz.

Horrez gain, arrazoi pertsonalengatik errepidez etortzen diren turistak izan ezik, ez da egon bestelako motibazio dinamikorik aisialdiaren arrazoi ordezkatzeko.




2.11.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea

Euskadiko turista atzerritarrek bere sexuagatik eta bidaia hau egitera eraman dituzten arrazoiagatik bereizten dituztenean, arrazoi batzuetan banaketa oso desberdina dela orokorrera eta haien artean egiaztatzen da. Zerbitzu pertsonalak dira gizonak eta emakumeak proportzio berean banatzen dituzten arrazoiak, globalki egiten dutenmoduan.

Lan motiboetaz, negozioez, hitz egiterakoan gizonen presentzia emakumeen aurrean funtsean nagusitzen dela ikusten da.

Aitzitik, ikasketen arrazoiaren proportzioa itzuli egiten da, emakumeek %56 presentzia lortuz gizonen %44ren aurrean.




2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2007 - 2010)

Atzerritarren eskari turistikoak oso egonaldi motzek menderatuta jarraitzen du, nahiz eta aurreko urteetan baino proportzio txikiagoan izan. Horrela, %61k inguruk 3 gau ematen dituzte, eta ez da %13ra heltzen astebete baino gehiagoko bisitak egiten dituzten bisitarien taldea.

Ohikoak dira bereziki 2 edo 3 gauko egonaldiak, asteburuko edo jai-zubietakoak, gainera hauek dira 2010ean jaisten diren bakarrak, beste gainerako ostatu-gau geruzen kontura.

Ostatu-gau bateko egonaldiek %35 handitzen dira jada joan den urtean esperimentatutako errekonferentziari buruz. Eta asteroko egonaldiak ere ia %18 hazten dira eta aste bat baino gehiagokoak %11tan egiten dute.




2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2010)

Atzerriko turismoaren portaera Espainian oso bestelakoa da, izan ere, gehienbat, 4 eta 7 gau artean ematen dituzte, eta hiru egun baino gehiagoko egonaldiak nagusi dira (ia %80); Euskadin berriz, %30ra ere ez dira heltzen.

Bi aste baino gehiagoko bisiten ehunekoa bakarrik da antzekoa.

Antzekotasun horrek ez du ezkutitzen turismo-ereduen desberdintasun

handia. Euskadik hurbileko inguruaren mendetasun handia du, sarbide azkarra duelako, errepidez nagusiki, eta motibazio nagusiak aisialdia, kultura eta pertsonalak dira. Oso turista gutxi etortzen da eguzkia hartu eta hondartzara joateko, eta, horrek, Espainiatik etorritako turista kopurua mugatu egiten du.




2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Turista zein garraio motaren bidez etortzen den, gau kopurua ere aldatu egiten da.

Hegazkinaz etortzen direnek gau gehiago ematen dituzte, errepidez etortzen direnen aldean. Horrez gain, gau bateko egonaldiak ekartzen ditu, eta gehienak 2 eta 15 gauetakoak dira. Bisitak, normalean, 4 eta 7 gau artekoak dira.

Bi asteoko ostatu-gauak eta gehiagoko egonaldiak, Euskadira aire bidetik sartzen diren turista atzerritarren %30a dira.


Horren aldean, errepidez etortzen direnek, gehienbat, hiru gau ematen dituzte gehienez, eta oso gutxi dira astebete baino gehiago ematen dutenak.



Erregistratutako eskariaren igoera, errepidean batez ere, egun bateko (%35,4tako) eta bi asteko (%20,7tako) egonaldietara lotuta dago. Galera dago 2 eta 3 gauko eta 15 gau eta gehiagoko geruzetan. Airez sartzen direnetarako, egoera aldatu egiten da, gehikuntza handiena aste bateko (%34,0etako) bidaiak lortuz, egun bateko (%33,4takoetako) eta bi aste baino gehiagoko iraupenekoak, bere kuota ia %20 bat areagotzen dutelarik. Aitzitik, bi asteko turistak dira. %8,4an atzera egiten dutenak.

2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea

Egonaldiaren iraupenak eta turisten sexuak, erlazio proportzionala mantentzen dute. Hala, ostatu gauen kopurua igotzean, emakumezko turisten kopurua ere igotzen da. Gau bateko egonaldia egiten duten gizonezkoak %68 dira eta ostatu gauak igotzen dijoazen arabera bere presentzia jeisten dijoa, hilabete baino gehiagoko egonaldietan %41 direlarik.




Emakumeetan aldaketak daude, gau bateko egonaldietako turistek konposatzen duten %32tik, 30 gauko egonaldietako turisten %59arte.

2.16.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. 2010 urtea

Batez beste 6,1 gau ematen dituzte atzerritarrek, eta haien jatorria zein den gau kopurua aldatu egiten da.

Nabarmentzen dira Europatik ez datozenak. Bere egonaldiek 17 jardunaldietako batezbesteko iraupena dute, alemanen, britaniarren, italiarren eta proportzio txikiagoan printzipaleetatik kanpo dauden Europako beste herrialdeena hirukoiztuz.

Aurkako muturrean, frantsesak 3 jardunaldirekin eta portugaldarrak 4rekin, bisita motzenak egiten dituztenak dira.




2009aren aurrean, turisten egonaldien laburtzea nabarmentzen da bizilekua edozein dutela ere, portugaldarrak eta munduko beste herri batzuetan elkartutakoak izan ezik.

2.17.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa. 2010 urtea

Egonaldien iraupenaren batezbestekoak, aurreko ariketetan bezala, antzeko banaketa jarraitzen du Estatuan eta Euskadin.

Orokorrean, Estatuan luze samarragoak izateko joera dute, alemaniar eta frantsesen artean bereziki. Azken honetan, Espainia mailako egonaldi hauek, merkatu hontako bisitariak Euskal Herrian egiten dituztenak bikoiztu egiten dituzte.

Frantziako turisten egonaldi kopurua atzeritarrek Euskadin eta Estatuan egindako turismoaren erakusgarria da, errepidez etortzen den distantzia ertain eta laburreko turismo baten oso mendekoa baita.




2.18.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Azken urteetako joerarekin jarraituz, turistek hotel-ostatua nahiago dute gehien bat, nahiz eta presentzia txikiagoan izan. Ostatu mota hau da besteen ondoan gehien gutxitzen dena, doako etxebizitzek, berezko etxebizitza eta senideen edo lagunen etxebizitzek osatutakoak, igoera garrantzitsua esperimendatuz.

Alokatutako etxebizitza ez da oraindik onartua izan turisten artean, hauen %3,3 bakarrik adierazten du. Egia da, eredu honetan dagoen eskaintzak ez diola bere igoera handiago bati laguntzen.

Krisiaren efektua, berriro ere nabaritzen da egonaldirako ostatu mota aukeratzekoan, hotelak baino ostatu mota merkeagoen alde, nahiz eta turisten %52 oraingoz hartu.

Doako etxebizitzaren barruan, berezko etxebizitzak %37ko jeitsiera bat jasan du, familia edo lagunen etxebizitzetan %43ko igoerak aurre egiten diolarik.




2.19.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

2009ari buruz, errepide bidezko turisten jeitsieraren (%8,3) ondorioa da hotel-sistemaren beherakada. Oro har, hotel-ostatuaren jaitsiera %1,2koa izan da soilik, airez etorritako, hoteletan (%15,2tan) ostatu emandako turisten artean espermentatutako gehikuntzari esker geldiarazita.

Errepidez datozen turista atzeritarren artean, hazkunde handiagoa lortu dute doako etxebizitzaren erabilera eta lehenago aipatutakoetan ez sartutako beste ostatu-tipo batzuk, %39 inguru bakoitzak.

Kontrara, aire bidezko datozenetan da, beste ostatu-mota batzuetan gaua ematen duten turista hauek gutxitu diren tokia.




2.20.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2010)

Euskadiko eta Estatuko eskaeren ostatu-egitura antzekoa da oro har: hotela eta altu dauden lekuak nagusitzen dira doako etxebizitzaren artean. Aldeen artean, Euskadin, oso gutxitan aukeratu dituzte alokatutako etxebizitzak, eta askotan bestelakoak.

Azken urteetan joerak egonkor jarraitu du. Aldaketa handirik gertatu ez bada ere, bilakaerari begiratuta, badirudi hotela dela ostaturik gustukoena bi testuinguruetan.

2010. urtean Espainiako turista atzeritarren banaketak, ostatu motaren arabera, hotel-eskariaren gorakada bat dauka eta beherakada bat beste ostatu modalitateetan. Hala ere, Euskadin, hotelek pisua galtzen dute beste ostatu moten alde.




2.21.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta sexuaren arabera. 2010 urtea

Sexuagatik dauden aldaketak, autatutako ostatu motaren arabera, antzeko mantentzen dira, %55 eta %65 baten artean (gizonen kasuan).

Ostatu mota guztietan, gizonak dira proportzio handiena mantentzen dutenak, ia %55 kanpinean eta bereko etxebizitzetan %65ren inguruan.

Proportzio hauek egonkor mantentzen dira aurreko urtearen egoera turistikoari dagokionez.




2.22.- Euskadira etortzen diren turistak bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Euskadira datozen turistek bere bidaia antolatzen duten modua, ia bere osotasunean, pakete turistikorik eskuratu gabe da (%97rik).

Aurreko urteari buruz esperimentatutako bilakaerak, ez du islatzen begietsitako bi antolaketa-formen arteko hamarrenean egon den dezimal batzuen aldaketa baino ez. Antolaketaren egonkortasuna sendoa da.


Logikoa da pentsatzea teknologien erabilpena geroz eta handiagoa den garai honetan, Internetena adibidez, bidaien antolaketa pertsonalari laguntzen diola, informazio-bilaketak eta prezio lehiakorragokoak aurkituz.



2.23.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketa eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Antolaketa era hau, handiagoa da errepidez datozen turisten artean, %100k ia ez duelarik pakete turistikoa erabiltzen, bidaia bere ibigailuan egitean.

Erabiltzea onartu duen portzentai txikia (%0,4), errepidez, baina autobusez etortzen diren turista gutxi batzuk konposatzen dute.




Aire bidetik datozen bidaiarien multzoa, pakete turistikoaren erabilpena agertzen den multzoa da, balio ez oso nabarmen batekin 2010ean (%8,5).

2.24.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, bidaiaren antolaketa eta sexuaren arabera. 2010 urtea.

Pakete turistikorik gabeko turistak bere sexuari dagokionez, multzo osoak egiten duen moduan banatzen dira.

Emakumezkoak dira bere bidaia antolatzeko pakete turistikoa gehien erabiltzen dutenak, %50 baino proportzio handiagoan.




Pakete turistikoa erabiltzen duten emakumeen pisu hau, azken urtean 3 puntu portzentualetan jeitsi da beheranzko joera bat markatuz.

3. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK

3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Euskadi mugan egoteak, eta zehazki, mugaren bi aldeetako harremanen eta trukeen eskualdeko portaerak, txangozale ugari egotea dakarte. Horrez gain, ez dago turismo-eskaintza masiboa, alegia, eguzkia eta hondartzaren eskaintza moduko eskaintzarik. Horren ondorioz, atzerritarrek egindako 10 bisitetatik 9tan ez dute gaurik ematen. Donostia mugatik hurbil egotea, eta, batez ere, haren ertzean bertan dagoen hiri-kokapen garrantzitsua, gakoak dira merkataritza-, lan- eta aisialdi-harreman garrantzitsuak ezartzeko. Horrela, etengabe etortzen dira txangozaleak.




Euskadira 8.222.000 txangozale inguru etorri ziren 2010. urtean. Honek hazkunde arina (%2,2) dakar aurreko urtean heldutako bolumenaren gainean, aurreko urtean ikusitako merkatuaren errekuperazioa sendotuz.

3.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, sexuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Txangozaleen arteko banaketa sexuaren arabera, bisitarien artean hauek daukaten pisu handia dela eta, bisitarien multzo osoak dituen emaitzak lortzen ditu, non gizonetakoak txangozaleen %59a diren.


Aurreko 5 urteetan gizon eta emakumeen arteko proportzioa % 55 - %45etik hurbil egon da, 2010 hau izanik desberdintasun handiena aurkeztzen duen urtea.



3.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2007 – 2010)

Bisita kopuruak nabarmen egin zuen gora udan, abuztuan bereziki, udaberrian eta udazkenean baino zertxobait gehiago. Urtarrilean eta otsailean egon zen txangozale gutxi; abuztuan egondakoen herena.

Sasoien arabera joera horretan, aisialdiak eta merkataritza-harremanek laguntzen dute. Trukeak eskualdeen artean dira batik bat, nazioarteko trukeen aldean. Hala ere, sasoiko izaera hori ez da hain nabaria turisten artean



T2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, bisitaren urte eta hilabeteko, garraio motaren arabera. 2007 – 2010 urteak / Excursionistas con destino en el País Vasco por año y mes de la visita según modo de transporte. Años 2007 – 2010

	GUZTIRA/ TOTAL	Errepidea/ Carretera	Aireportua/ Aeropuerto
2007	7.987.328	7.981.061	6.267
Guztira/Total	7.987.328	7.981.061	6.267
Urtarrila/Enero	530.737	530.516	221
Otsaila/Febrero	504.883	504.791	92
Martxoa/Marzo	634.919	634.365	554
Apirila/Abril	731.179	730.698	481
Maiatza/Mayo	624.385	623.821	564
Ekaina/Junio	704.407	703.810	597
Uztaila/Julio	819.822	819.001	821
Abuztua/Agosto	1.128.592	1.127.710	882
Iraila/Septiembre	682.776	681.810	966
Urria/Octubre	566.695	566.370	325
Azaroa/Noviembre	531.856	531.577	279
Abendua/Diciembre	527.077	526.592	485
2008	7.841.700	7.835.570	6.130
Guztira/Total	7.841.700	7.835.570	6.130
Urtarrila/Enero	488.583	488.369	214
Otsaila/Febrero	547.348	547.158	190
Martxoa/Marzo	570.793	570.042	751
Apirila/Abril	582.852	582.281	571
Maiatza/Mayo	685.915	685.507	408
Ekaina/Junio	648.892	648.429	463
Uztaila/Julio	883.170	882.714	456
Abuztua/Agosto	1.157.148	1.156.272	876
Iraila/Septiembre	659.516	658.892	624
Urria/Octubre	572.231	571.301	930
Azaroa/Noviembre	500.511	500.436	75
Abendua/Diciembre	544.741	544.169	572
2009	8.042.066	8.039.381	2.685
Guztira/Total	8.042.066	8.039.381	2.685
Urtarrila/Enero	490.963	490.776	187
Otsaila/Febrero	483.144	483.013	131
Martxoa/Marzo	520.955	520.644	311
Apirila/Abril	645.165	644.823	342
Maiatza/Mayo	658.478	658.275	203
Ekaina/Junio	617.234	617.022	212
Uztaila/Julio	807.272	807.272	0
Abuztua/Agosto	1.337.454	1.336.750	704
Iraila/Septiembre	722.233	722.233	0
Urria/Octubre	587.200	586.846	354
Azaroa/Noviembre	557.519	557.440	79
Abendua/Diciembre	614.449	614.287	162
2010	8.222.104	8.212.117	9.987
Guztira/Total	8.222.104	8.212.117	9.987
Urtarrila/Enero	499.162	498.837	325
Otsaila/Febrero	499.805	499.554	251
Martxoa/Marzo	654.587	654.569	18
Apirila/Abril	605.681	605.626	55
Maiatza/Mayo	570.326	570.188	138
Ekaina/Junio	611.298	608.530	2.768
Uztaila/Julio	825.780	824.726	1.054
Abuztua/Agosto	1.403.602	1.402.050	1.552
Iraila/Septiembre	794.981	793.300	1.681
Urria/Octubre	675.663	675.091	572
Azaroa/Noviembre	506.757	505.905	852
Abendua/Diciembre	574.462	573.741	721

Txangozaleen bisiten igoera ez zen homogeneoa izan urte osoan zehar. Aitzitik, funtsean, urritik urtarilera dihoan tartean konzentratzen da, apirila, maiatza eta ekaina kanpo utziz.

Igoera handiena duen hilabetea Martxoa da, %26 batekin. Gehikuntza hau, Apirilean, Aste Santuan, erregistratutako galerarekin konpentsatzen da, txangozaleen igoera bat baitago. Urte batetik bestera Aste Santuko egunak dituzten aldaketak, gorabehera hauek eragiten dituzte, bere osotasunean igoera oso positibo bat eraginez, 94.000 txangozale gehiagorena.

Azaroa eta abendua, txangozaleen zenbakiari dagokionez txarrak izan dira, bi hilabete hauetan 91.000 txangozaleen bisitak galduz.

Galera hau ona dela esan liteke, txangozaleak izateari utzi dioten bidaiariak turista-taldearen parte izatera pasatu balira, ostatu-gauren bat egiteagatik. Baina ez da kasua, Abenduan turistek ere beherakada bat jasan baitute. Hala ere, urte osoko balantzea positiboa da, txangozaleen 180.000 bisitekin.

Aurten, 2010ean, abuztuan bisiten piko historiko oso nabarmen bat berriro ere markatu da (1.403.602 txangozaleen bisita).


Urtero, airez datozen txangolariak oso hutsalak dira errepidez datozenen aurrean, horregatik, nahiz eta errepidezkoak %2,1 eta airezkoak %2,72 igo, ez da ohi ez bezalako hazkunde bat, 2009an erregistratutako 2.685 txangolarietatik aurten egon diren 9.987ak arteko igoerari baitagokio, hau da, 7.000 txangozaleen igoera.

Errepidearen portaerak, hileroko txangozaleen multzo osoaren gorabeherak errepikatzen ditu, eta aireportuan da igoera eta jeitsiera deigarrienak gertatzen diren tokia, baina garrantzi handirik gabekoak, balore absolutoak ez baitira oso nabarmenak.

3.4.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Errepidez datozen txangozaleak dira txangozaletasunaren joera markatzen dutenak, aireportutik heltzen direnak erresidualak bezala kontuan hartzerakoan.


2007 eta 2008. urteek txangozaletasunaren beherako joera bat aurkeztu zuten, baina azken bi urte hauetan aurre egin zaio igoerarako joera bat lortuz.



3.5.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Euskadi bisitatzen duten errepidez datozen atzerriar turisten bizilekua, mugarekiko hurbiltasunagatik, ondoko herrialdekoa, Frantziakoa, da ia bere osotasunean.

Gainerako bizilekuak (aurten %3,5), gehien bat, Frantzian oporretan dauden eta Euskadira eguna pasatzera sartzen diren (gaurik pasa gabe) munduko beste herrialdeetako bidaiariekin bat datoz.




3.6.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2010)

Zerbitzu pertsonalak eta aisiak Euskadira heltzen diren txangozaileen bisita gehienak azaltzen dituzte. Bereziki lehenengoak, lehen faktore motibatzaile bezala eta arrazoiaren osagarritasunak alde batera utziz, Euskadira datozen atzerriko bi txangolarietatik bat azaltzen du.

2010. urtean, beste arrazoiek igoera handi bat jasan dute, erosketen arrazoiak epigrafe honetan elkartua baitago, aurreko urteetan berriz zerbitzu pertsonalen barruan jasota zegoen. Bere hazkunde konparatiboa ez da erreala.


Aisiagatik egindako bisitak errepidez etortzen diren txangozaileen laurden bat dira eta lanekoak osoaren %7a.



3.7.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2010 urtea

Euskadi lan edo negoziozko arrazoiengatik bisitatzen duten txangozaleen %80a gizonezkoak dira eta beste %20 emakumezkoak. Desproporzio hau turisten artean ere ematen zen arrazoi berdina aztertu ezker.

Gainerako arrazoiak aldaketa txikiak dituzte bere sexuarekiko banaketan.



4. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN GASTUAK


Atzeritarrek Euskadin egindako gastuak eta helduera kopuruak antzeko bilakaera izan dute. 2010ak hazkunde bat erregistratzen du ondoz ondoko bigarren urtez, 2006tik erregistratuz zectorren gastua urritzearen kontra, %1,4ko igoera batekin, lehengo urtean erregistratutako zifrari dagokionez.

Bisitarien igoera %3,2koa izan da, baina bere gastuarena txikiagoa izan da. Aurten, lehengo urtearekin konparatuz (%-2,9), pertsonako gastua ia 4 eurotan jeitsi dela eta gertatu da.

Pertsona eta eguneko batezbesteko gastuak ere 2 euroko jeitsiera bat jasan du, hau da, %2,4a.

4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Informazioa daukagunez gero, 2006.urtean da, bisitarien gastuak bere kota altuena lortu duenean, gero jeisten joateko 2008an minimora iritsi arte. Hemendik aurrera Euskadin ekonomi turistikoak gora egiten du, aurten 2007ko egoera berdinerara iritsiz.



4.2.- Euskal Herrira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa. 2010 urtea


Euskal Herria bisitatzen duten bisitarien gastua ia %50 batean txangoez eta kontzeptu nagusien artean ez jasotako beste gastu batzuek konposaturik dago. Ia 530 milioi euro hauetatik, txangolariak 459 milioi dira.

Txangozaleek ez dute pakete turistikoaren gastuan parte hartzen, ez ostatu gastuetan, ez jangaietako gastuetan, baina garraio eta jatetxe eta tabernetan %50 gutxi gorabehera ekartzen dute turistek bezala.




Garrantziko bigarren gastua garraioan egindakoa da, 275 milioi eta erdi baino gehiagokoa. Jarraian jatetxe, taberna eta kafetegietan egindakoa dago 138 milioirekin eta bukatzeko 110 milioirekin ostatuan egiten dena. Jangaietako gastua 40 milioikoa da eta denetan baxuena pakete turistikoaren gastua 16 milioirekin.

4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)



2010ean egindako gastuaren ia erdia (%41) arrazoi pertsonalengatik egindako bisitei dagokie. Aisia eta oporrak %30 batekin eta negozioak %17 batekin, gastu-bolumen adierazgarrien sortzaileak diren arrazoiak osatzen dituzte.

4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien batez besteko gastua, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)




Eguneko gastu handiena negozioetara datorren bidaiariari dagokio, 105 euro eguneko, aisiagatik, arrazoi pertsonalengatik edo beste arrazoiengatik datozen bisitariek aldiz, eguneko zifra antzekoak sortzen dituzte, 82 eta 85 euro artean. Ikasleak dira egunero gasturik txikiena egin zutenak, alde nabarmenarekin (43 euro). Eguneko gastuaren batezbestekoa 84,10 eurokoa da.

Negoioetara datorren bidaiariaren eguneko gastua batezbestekoa baino %24a altuagoa da. Azken urteetako joerak zenbaki hauen berdintze bat erakusten du. Hau, bidaiari mota honen gastuaren jeitsiera handiari eta bisitarien gastuaren igoerari, beste arrazoi batzuen artean dagokie.

4.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Ikasleen bisiten iraupena beste edozein bidaiariena baino luzeagoa da, eta hori dela eta, haien batez besteko gastu osoa handiagoa da. Hala ere, datu horretan kontuan hartu behar da bidaiari kopurua eta eguneko egindako batez besteko gastua, ikasleek egindako gastu osoa oso txikia baita.





Nabarmendu behar dugu Euskadira lanarengatik eta negozioak egiteko etortzen diren bisitarien batez besteko gastua. Izan ere, 253 euroko gastua egiten dute, aisialdirako etortzen direnen aldean (140 euro), eta bereziki arrazoi pertsonalengatik bisita egiten dutenen aldean (94 euro).


Pertsonako batezbesteko gastua 120,44 eurokoa da. 2009an lortutakoa baino %2,9 gutxiagokoa.

4.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2010 urtea

Turista atzerritarrak Euskadin, gizonen kasuan, 670 milio eta erdiko gastu turistikoa sortzen dute, emakumeen kasuan ordea ia 440 milioi.



Turistak/ Turistas



Txangolariak/ Excursionistas

Gizonezko turistek egindako gastuak, gastu osoaren %59a irudikatzen du eta 286 milioi euro baino gehiagora iristen da. Emakumezko turistek ordea, 201 milioi gastatzen dituzte.


Gizonezko txangozaleek Euskal Herrira egindako bisitetan 384 milioi eta erdi gastatzen dituzte gutxi gorabehera, txangozaleen gastu totalaren %62 irudikatuz. Gaurik pasatzen ez duten emakumeek, 238 milioi eta erdi euro.

4.7.- Euskadira etortzen diren bisitarien eguneko batezbesteko gastua (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2010 urtea

Gizonezko bisitarien eguneko batezbesteko gastua 91 eurokoa da eta emakumeena ia 76koa.

Turisten artean, gizonezkoek egiten duten eguneko batezbesteko gastua emakumeek egiten dutena baino %40 handiagoa da.


Txangolarien arteko desberdintasunak txikiagoak dira, gizonezkoek emakumezkoak %11 batean gaituz.



4.8.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. 2010 urtea

Emakumezko turistak gizonezkoak baino %11 bat gehiago gastatzen dute bere bidaietan. Gastua askoz txikiagoa da, Euskal Herria bisitatzen duten emakumezko turista atzerritarren portzentaia txikiagoa delako.

Txangozaleen gastua pertsonako, gaua ez dutenez igarotzen, lehenago aipatutako eguneko gastuaren baliokidea da.



5. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN GASTUAK

Atzerriko turistek 487 milioi euro baino gehiagoko gastua egin zuten.


Lau urte jarraietan jeitsiara bat egon eta gero, turista atzerritarrek egindako gastua 2010ean gutxinaka berreskuratzen hasi da. Gorakada honek 2009 urtearekin alderatuta %5,7ko igoera bat ekartzen du, azken bost urteetako okerrera.

Txangozaleekin gertatzen den bezala, gastu osoa igo eginten da, baina eguneko batezbesteko gastua eta pertsonako batezbesteko gastua jeitsi egiten dira lehengo urtearekin konparatuz.

5.1.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

2006. urtean atzerriko turistek egindako gastuaren kota maximoa lortzen da, geroago behera egiteko, 2009an bere kota minimora heldu arte. %21,2ko galera hau krisi mundialak eragindako atzerapen ekonomikoari zor zaio.

2010ean igoera txiki bat nabari da, 487.513.906 euroetara iritsiz.




5.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa. 2010 urtea

Turistek gastu gehiena garraioan egiten dute, ia 170 milioikoa. Gehien bat aireko garraioa erabiltzeagatik da, ibilgailu pribatua erabiltzea baino garestiagoa baita.

Ostatuan egindako gastuak (110 milioi) ere modu garrantzitsuan laguntzen du gastu turistiko osoan.


Pakete turistikoa erabiliz bere bidaia antolatzen duten turista gutxi daudenez, gastu osoaren %3 bat (16 milioi euro) baino ez dira.



5.3.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua. Urteko bilakaera (2005 – 2010)


Hala ere, eguneko batezbesteko gastuak, gastu osoarena joerarekin konparatuz, joera oso ezberdina darama. Eguneko batezbesteko gastua 2007arte igotzen joan da, gastu osoa jada jeisten hasia zegoelarik.

2008an eguneko gastuan 10 euroko (%8,7) beherakada zakar bat egon zen, hurrengo bi urteetan egonkor jarraitu du, xentimoak bakarrik galduz aurtien minimora iritsiz 98,25 euroekin.




5.4.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Pertsonako eguneko bezalako dauka, 2007an lortu %11ko nabarmenago duelarik, iritsi arte 552,27euroko batekin.



5.5.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)




Frantziako merkatuak sortu zuen atzerriko turismo-gasturik handiena, 115 milioi euroko ekarpenarekin, hots, urte osoaren %24 inguru. 2010. urtean zehar, Frantziak gastu hontan bere pisu erlatiboa jeitsi du, 23 milioi euroko galerarekin.

Frantziako merkatuaz gain, turismo-herrialde eta -eskualdeen artean gastuak hedapen handia izan zuen. Beste lau merkatuk %7 eta %10en arteko proportzioak aurkezten dituzte: merkatu latinoamerikarrak gastu turistikoaren %8,6a ekartzen du, alemanak %9,7 eta estatubatuarrek %7,7.

Frantziarrak ekonomia turistikoari egiten dion ekarpena alemanek egindakoa baino hiru aldiz handiagoa da. Alemanak rankingean bigarrenak dira 47 milloi eta erdiko gastuarekin.

Portugaldar merkatua 2009 tik %43 igo da, Erresuma Batua jarraian dijoa %20rekin. Alemanak, italiarrak eta estatubatuarrek, %15 bat berreskuratzen dute, frantsesen beherapena %17koa da ordea eta latinoamerikarren merkatua %11koa da gutxi gorabehera.

5.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bizileku nagusien arabera. 2010 urtea




Gastuaren banaketa bizileku nagusien arabera aztertzen denean, argi dago hurrunago dauden herrialdeetako turistek (Estatu Batuak eta Latinoamerika) bere gastu gehiena garraioan inbertitzen dutela. Aitzitik, Frantsesek, bere gertutasuna dela eta errepide bidez sartzen diren turisten zenbaki altuagoa da, beraz garraioan gutxien gastatzen dutenak dira.

Ostatu gastua oso antzeko eran banatzen da herrialde desberdinen artean, bere kostuak ez baitu zerikusirik bizilekuarekin, denentzat berdina delarik.

Pakete turistikoko gastuak garrantzi minimo bat dauka herrialde batzuetan, eta beste batzuetan ia ez da estimatzen, adibidez Frantzia eta Estatu Batuetan.

5.7.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 - 2010)


Turismo-merkatuek aldaketa nabarmenak izan dituzte eguneko batez besteko gastu orokorrean, 98 eurokoak hain zuzen. Egunko gastu handiena daukana, merkatua italiarra da, eguneko 122 euroekin. Jarraian merkatu alemaniarra dago (106 euro) eta gero ingelesak eta estatubatuarrek, bi azken hauek eguneko 100 euroko gastuarekin.



Beste muturrean, eguneko gastu txikienekin merkatu frantsesa dago (85 euros), baina aipatutako gastu osoan bere ekarpena handia da turista zenbakia handia delako, eta bestalde latinoamerikarra 97 eurorekin eta portugaldarra 98rekin.


Turistek aurkezten dituzten joerak bere bizileku nagusiaren arabera oso desberdinak dira.

Estatu Batuetan eta Portugalen bizilekua daukatenak bere eguneko gastua %26 bat jeisten dute, eta alemaniarrek eta frantsesak %2a. Italiarrak, ingelesak eta latinoamerikarrak dira, lehengo urtearekin konparatuz, bere eguneko batezbesteko gastua igo duten bakarrak.



5.8.- Euskadira etortzen diren turisten pertsonako batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)


Merkatuetan batez besteko gastuan egondako diferentziak turismo-egonaldien iraupenarengatik gertatu dira Euskadin. Errepidez errazago heltzen diren merkatuak dira pertsonako batez besteko gastu txikiena dutenak, hala nola Frantziak eta Portugalek. Urrunen daudenak dira gastu handiagoa egiten dutenak, merkatu bakoitzaren bisiten berariazko iraupenaren arabera ere bai.



Estatubatuar merkatua, 1.827 milioi eurorekin eta batez ere latinoamerikarra, 1.907 eurorekin, pertsonako 552 euroko batezbesteko gastutik asko aldentzen dira.

Beste merkatu nagusien artean, alemanen gastua batezbestekoa (700 euro) baino nabarmenki altuagoa da, britanierrena (606 euro) pixka bat altuagoa eta bestalde frantsesena (261 euro) askoz baxuagoa.

Azken urtean estatubatuarren pertsonako gastua oso nabarmenki hazi da, %4,7 bat, portugaldarrak segidan daude %7 batekin. Italiarrak ia ez dira aldatu eta beste guztiak behera egin dute, ingelesak %1etik frantsesen %24ra.




5.9.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bisitaren arrazoi nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Aisialdiek eta negoziok Euskadiko atzerriko turisten gastuaren %77 ekartzen dute.

Gutxi gorabehera 230 milioi euro sortu eta gero, eta osoaren %47a izanik, aisia eta oporrak dira sarrera turistikoaren arrazoi nagusia. Aurten arrazoi hau %5,2 bat igo da, 2006tik zekarren

beheranzko joera aldatuz, %42ko galera bat metatuz. Aldera, lan arrazoiengatik etorri diren turisten gastua 2006tik igoera xume bat jarraitu du (%23), aurten %6 batean atzera egiteko. Hala ere, bi bidaiari multzo hauek dira gastu turistikoa sortzen dutenen artean garrantzitsuenak.

Arrazoi pertsonalengatik datozen turisten zenbakia %31,5 bat igo da, ikasketengatik datozenena %43 bat, eta beste arrazoi batzuegatik datozenena berdin mantendu da bere diru ekarpenetan.




5.10.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bisitaren arrazoiaren arabera. 2010 urtea

Gastu turistikoa jokoera irregular bat azaltzen du Euskadi bistatzeko arrazoi nagusiaren arabera banaketa kontuan hartuta.


Negoziengatik etorritako turistak, lanagatik, txangoetan gastu gutxiago egiten dute beste arrazoiengatik etorritako turista guztiekin alderatuz, eta gehiago garraioan. Pertsona

batek lan bidai bat egiten duenean, normalean bidai lanen beharretara egokitu behar du, horregatik askotan ezinezkoa zaio garraioaren kostua gutxituko lituzketen beherapenak erabiltzea. Halabaina, beste arrazoiengatik etortzen diren turistak, gehiago aprobetxatu ditzazkete beherepen hauek, bere egonaldia egunez aldatuz.




5.11.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua, bisitaren arrazoa nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Lana eta negoziak %13,5eko galera batekin, 122 eurokoa, eta aisia eta oporrak %10,6ko igoera batekin, 116 eurokoa, bisita eguneko gastuaren maximoak sorrerazten dituzte. Beste arrazoiak hauen oso azpitik kokatzen dira, baita eguneko batezbesteko gastuaren (98,25 euro) azpitik ere.



5.12.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako, bisitaren arrazoa nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Ikasleek pertsonako sortutako batez besteko gastu handia (batez ere egonaldiak askoz ere luzeagoak direlako) ezin da konparatu beste arrazoiengatik egindako gastuekin. Hala ere, ez du eragin handirik sortutako gastu osoan, eguneko gastu-maila txikia delako, eta, bereziki, horrekin lotutako bidaiari-bolumena ere eskasa delako.




Gastua ekartzen duten arrazoi nagusien artean, negozioak dira, 918 euroekin, pertsonako gastu-mailarik handiena dutena, izan ere, aisialdirako etortzen diren bisiten gastua ia bikoizten dute (545 euro). Pertsonako gastuak arrazoi pertsonalen eta beste arrazoiengatik, batezbesteko gastuaren azpitik kokatzen dira, hau 552,27 eurokoa baita.

Azkeneko urtean zehar, joera hau hazi egiten da, bai aisia eta oporretako bidaiariaren gastuaren igoeragatik (%5), bai lanera eta negozioetara datozenen jeitsiera eskasagatik (%-8).

5.13.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Ostatu motaren arabera, hotelak ekartzen du turismo-gasturik handiena. Hain zuzen, 266 milioi dira, turismoak sortutako gastu osoaren %55a.


Hala ere, azken hiru ekitaldietan, ostatu mota honen ekarpena nahiko gutxitu da, hala, 2010 urtean azkeneko bost urteetan bisitari mota honek sortutako balio baxuena izanik, 100 milioi eurotan jeitsi eta gero.



Senide edo lagunaren etxebizitzetan ostatu hartutako bisitariak dira aurrekoen ondoren gasturik handiena egiten dutenak (%20,6). 2010ean 100 milioi euro dira, aurreko ekitaldian lortutakoa baino %32,3 gehiago. Honek 2006ko maximoa eta gero dagoen beherako joerari buelta ematen dio.

Alokatuta eta kanpinetan dauden bisitarien antzeko gastua egin dute, gastu osoaren %6 eta %11 artean.


5.14.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, erabilitako ostatuaren arabera. 2010 urtea



Ostatu motari dagokionez, alokairuzko etxebizitzak eta hotelak dira ostatu gastuan garrantzi gehiena daukatenak, eta aldiz, doako ostatuak bere minimoa lortzen du, gehienbat famili eta lagunaren etxebizitzek.


Ostatuan bere aurrekontuaren zati txiki bat gastatzen duten turista hauek, garraioan eta txangoetan gehien gastatzen dutenak dira.

5.15.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)



Eguneko batezbesteko gastua handiena pertsonako, hotelei bateratzen zaie, besteen oso gaitetik. Egunean 171 eurokoa da, aldiz bere etxebizitzetara etortzen direnena 104 eurokoa edo 72 eurokoa alokairuzko etxebizitzetara edo beste ostatu motetara etortzen direnena. Kanpinetara eta famili edo lagunaren etxebizitzetara etortzen direnena, ez da iristen egunean 69 eurotara.

5.16.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)




Alokatutako etxebizitzak aukeratzen dituzte atzeritarrek gehienbat denboraldi luzeak egiteko, eta horren eraginez, beste edozeinek baino batez besteko gastu askoz ere handiagoa egiten dute pertsonako, norberaren etxean ostatu hartzen dituztenak barne. Azken horiek ere gastu txikiagoa egiten dute.

Hotelak eta famili eta lagunaren etxebizitzetara lotutako zenbakia, atzerriko turismoaren batezbestekotik gertu dago. Kanpinetan eta bestelako ostatuetan egondako bisitariak egiten dute gasturik txikiena pertsonako.

5.17.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Lau eta zazpi gau artean pasatzen dituzten turistek gastuak, 146 milioi euro ekartzen dituzte, gastu osoaren %30a irudikatzen dute eta %25ko gorakada bat adierazten dute.

15 egunetik gorako egonaldiak gastuaren %24 bat dira, 115 milioi eurotik gorako zifrekin.




Lau egunetik beherako egonaldiak 155 milioi euro ekartzen dituzte, %32 bat.

5.18.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2010 urtea

Beste egonaldien iraupenetan, gau bat edo 30 gau baino gehiagokoak, ez dira pakete turistikoan gastuak egiten, gastu hontan gehien inbertitzen duten bidaiariak 4 gautik 7ra egoten direnak dira. Hau bat dator merkatuan aste bateko bidaiak eskaintzen dituzten pakete turistikoan aniztasunarekin.

Garraioan gastuaren banaketa ostatu gauen alderantziz proportzionala da.

Ostatuan gastuak, ostatu gauekiko gastu proportzional bat izan behar lukete (ostatu gau gehiagok, kostu handiagoa), baina, banaketa 20-25 puntu portzentualetan mantentzen da. Hau beste gastu guztiak, garraioarena izan ezik, igo egiten direlako da, egonaldia luzeagoa izatean.




Jangaietako gastuak egonaldi luzeagoetan garrantzia handiagoa hartzen du. Turistek hilabete bat baino gehiagoko egonaldi bat egiten dutenean, ostatu mota ekonomikoagoak bilatzen dituzte (berezko etxebizitzak, edo familia eta lagunak) eta elikagaiak erosi egiten dituzte, hotelen ostatu erregimenak erabili beharrean (gosaria, mantenu erdia edo mantenu osoa).

5.19.- Euskadira etortzen diren turistaren eguneko batezbesteko gastua, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010).

Ikus daitekeenez gero, eguneko batezbesteko gastua egonaldiaren luzeerarekiko proportzionala da.

Eguneko gastua, 7 ostatu gauetarainoko egonaldientzat, batezbestekoa baino altuagoa da eta 8 ostatu gautik gorakoentzat baxuagoa.





Urteetan zehar, ostatu gau bateko egonaldiak dira gorabehera gehien eduki dituztenak, 200 euro eta 306 euroren artean. Beste egonaldi motek 25 euroko diferentzia baino gutxiagoko aldaketak izan dituzte.

5.20.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Eta pertsonako gastua egonaldiaren luzeerarekiko alderantziz proportzionala da.


Pertsonako gastua hilabete bat baina gehiagoko egonaldiak egiten dituzten 4.200 euroetatik, gau bakar bat pasatzen dutenen 202 euroetara doaz.



Ostatu gauen kopuruaren arabera turistek egiten dituzten pertsonako gastuak, ondo bereizitako bi talde osatzen dituzte. Alde batetik ostatu gau askotakoak, (15 egun baina gehiago) gastu handi bat islatzen dituztenak eta bestalde ostatu gau batetik 15era egiten dituztenak batezbestekotik gertu daudenak.

4 eta 7 gauetakoak eta 16 eta 30ekoak, gorakada txiki bat jasan dute, %6tik %8ra hurrenez hurren. Beste egonaldiak beheraka egin dute, %2 eta %14ren artean, azken hau 2 eta 3 gauko egonaldiak dagokiari.

5.21.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)




Bere bidaiaren pakete turistikoa erabiltzen ez duten bidaiarien gastua, turisten gastu osoaren %95ekoa da.

Gastuen bi multzo hauek, aurtun %6 inguru handitu dira, pakete turistikoa erabiltzen dutenen kasuan, igoera baten hasiera ekartzen duelarik, 2006ko beherako joera aldatuz.

5.22.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa, bidaiaren antolaketaren arabera. 2010 urtea

Bere bidaiaren egiteko pakete turistikoa aukeratu duten turistek, bere gastuaren gehiengoa pakete honen barruan egiten dute (16 milioi) eta jangaietan egindako gastuak (milioi erdia), garraioan egindako gastuak (bi milioi) eta ostatuan egindako gastuak (ia ez da milioira iristen) nabarmenki behera egiten dute.


Pakete turistikorik gabe bidaiatzen dutenen banaketa ia turisten banaketa globalarekin bat dator, hauek gastu osoaren %94,7a ekartzen baitute.



5.23.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batezbesteko gastua, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Pakete turistikorik erabiltzen ez duten turistek, bere egonaldiako 96 euroko eguneko kostu bat lortzen dute, ia pakete turistikoa erabiltzen dutenen erdia, hauek eguneko 161 euro ordaintzen dituztelarik.


Ez da ahaztu behar, pakete turistikoa erabiltzen ez duten turista gehienak, errepidez etortzen direnekin bat egiten dutela, erabiltzen dutenek baino garraio kostu baxuagoarekin. Normalean pakete turistikoa erabiltzen dutenak aire bidezko garraioa erabiltzen dute.



5.24.- Euskadira etortzen diren bisitarien batezbesteko gastua pertsonako, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Pakete turistikoa erabiltzen duten pertsonako gastua, aurreko urtearekiko %3,2 bat jeitsi da, eta ez dutenena erabiltzen %6,6. Pakete turistikoa erabiltzen ez duten gastua, erabiltzen dutenenaren erdikoa da.

Aldera, erabiltzen duten gastuaren bilakaerak, 2006tik 2009ra gorako joera bat erakusten du, eta aurreko izan da, 2010ean, joera hau aldatu denean. Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenak 2007tik gaur egunera bere gastua gutxitu egin dute.




6. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEEN GASTUAK

6.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Euskal Herrian atzerriko txangozaletasunak ekarritako gastua ia 623 milio eurokoa da. Zifra honek %1,7ko beherakada ekartzen du aurreko ekitaldiei begiratzuz eta berriz ere 2009an egondako gastu bolumen osoaren gorako joera hautsi egiten du.


Txangozaleen gaur egungo gastua %13,8 puntuetan dago, 2006ko kota historikoaren azpitik, 723milioi euroak gainditzen zirenean.



6.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoaren banaketa. 2010 urtea

Txangozaleen gastu turistikoaren banaketa turistek gastua egiten zuten 6 kontzeptuetatik hirutan bakarrik banatzen da.


Gastuaren zati garrantzitsuena txangoak eta beste gastu batzuk egiteko erabiltzen dute, ia 460 milioirekin. Bigarren postuan, garraioan egindako gastua egongo litzake, 107milio euro ingururekin, eta azken postuan, garrantzi gutxiagorekin, jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua, 57 milioi pasatxorekin.



6.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Arrazoi pertsonalak, 386 milioi eta erdi eurorekin, txangozaleen gastuaren arrazoi nagusiak dira. Egindako gastu osoaren %62 bat ekartzen dute, 2010. urtean behera asko egin duen pisua, aurreko ekitaldiarekin konparatuz 100 milioi euro galdu eta gero.


Gastu esanguratsuenen banaketa, aisiak txangozaleen gastuaren %17rekin eta negozioak %6arekin osatzen dute.



6.4.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. 2010 urtea


Txangozaleek egindako gastua bisitaren arrazoi nagusiaren arabera, nahiko aldatzen da arrazoi batetik bestera.

Oso esanguratsua da txangoetan eta zehaztu gabeko beste gastuetan egindako gastua, arrazoi pertsonalengatik etorritako txangozaleetan. 320 milioi euroko gastua egiten dute, txangozale guztien multzoak 623 milioi euro gastatzen dituelarik.




6.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Arazoiaren arabera txango motari dagokionez, arrazoi pertsonalengatik egindako bisitek ekarritako gastuak nabarmendu ziren: 84,4 euro pertsonako. Aisialdirako (54,2 euro) edo negozioak egiteko (69,3 euro) etorritakoen aldean, zifra askoz ere handiagoa da.



6.6.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)


Frantsez jatorriko txangozaleen gastuaren %98 baino zerbait bat gehiago sortzen du, hortaz joera ebolutiboak guztiz markatzen ditu. Ekarpenean hurrengo merkatua Erresuma Batua da, 2 milioi eta erdi eurekin. Txangozale frantziarren profilak ia eskualde-erlazio bat ezartzen du, internazionala beharrean.



6.7.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. 2010 urtea

Txangozaleen multzoak egindako gastuaren %98a Frantziarrek egiten dutenez, txangozale frantziar hauen gastuaren banaketa aztertzen da. Gastu honek txangozaleen gastu globala bezala jokatzen du.


Gastuaren %74a txangoei eta beste zehaztu gabeko gastuei dagokie (453 milioi euro). %17a garraioan egindako gastua da (105 milioi) eta %9a jatetxe, taberna eta kafetegietan egindakoa (54 milioi).



6.8.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa pertsonako, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2010)

Txangozale gastua pertsonako 76 eurokoa da, aurreko ekitaldian lortutakoa baino %4 gutxiago.

Distantzia luzeko txangozaleek mugako eskualdeetatik etorritakoek baino gastu handiagoa egin zuten pertsonako. Gastu hau Euskadin egindako txangoan egindako gastuaarekin bat dator. Osatzen duten multzo nagusiak garraioa, mantenua eta aisia beste gastu batzuk dira. Zenbaki baxuak dira ez dutelako ostatu gasturik eta garraio gastuak normalean berezko ibilgailuarenak direlako.




Frantziarrek batezbestekoa baino gastu baxuagoa daukate, 2009koaren %5 baino txikiagoa. Bestalde Erresuma Batutik datozenak pertsonako 76,09 euro gastatzen dituzte, %13ko gorakada batekin aurreko urtearekin konparatuz.

Pertsonako gastuaren arteko aldea berdintzen ari dira azken urteetan, 2007. urtean alderik handiena izan bazuten ere.

BASQUETOUR

TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO



Herri-baltza
Sociedad Pública del

Société Public du
Public corporation of

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO